


# BERRIGARA

32. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1991, irailak 13




**Moisesen urratsak  
jarraituz**



**Argazki eta  
postalen  
lehiaketa**



**Gora San  
Martin!!**



**Saskibaloia  
ilusioa  
bereskuratzera**



- Marko-jartzea
- Posterrak
- Litografiak

**Nikon**

Banatzaile ofiziala

# KIÑU

*Laborategi  
profesional  
onenetarikoa*

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 58 05





Barrenkale, 3. BERGARA. telf.: 943-765719

**ARGAZKI**

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66

# GALDE DEBALDE



**Jaime Garzia, Herran**  
dendak emandako saria  
jasotzen



**Esperanza Flores,  
Zubikuan** saria  
jasotzen



**Berrigarak**  
antzuolarrei eman zien  
saria



**HERRAN**  
**ETXEA**

Elektragailuak  
T.B. - Bideoak - HI FI  
Sukaldeko Altzariak

Matxiategi 3 Tfnoa: 76 12 22 BERGARA

**Zubikua**

**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 57



# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkartea  
 Errotalde Jauregia, 20.570  
 Bergara

**Tfnoa eta Faxa:** 760397

**Laguntzailea:** Bergarako  
 Udala

**Zuzendaria:**

Miguel Angel Elkoroberezibar

**Erredakzioa:**

Eneko Azkarate, Eduardo  
 Mendibil

**Maketazioa:**

Eneko Azkarate, Eduardo  
 Mendibil

**Publizitatea eta  
 harpidetzak:**

Ignazio Irigoien, Edurne Arenaza  
 Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:** Jose

Angel Mikeo, Estepan Plazaola  
 eta Juan Martin Elexpuru

**Kolaboratzaileak:** J. Oregi, A.

Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa  
 Lete, Jon A. Bengoa, Mikel  
 Lizarralde, Monika Belastegi,  
 Mikel Elkoroberezibar, Josune  
 Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber  
 Aretxaga eta Ainhoa Bikuña

**Argazki laborategia:** A.

Gallastegi, B. Cantero, M.  
 Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren,  
 J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares,  
 Txomin Retolaza, Kifitu eta Pol-  
 Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:**

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofeti)

**Banaketa:** Txantxangorri  
 Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

**Tirada:** 2.500 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain  
 hartzen aldizkarian adierazitako  
 esanen eta eritzien erantzunkizuniki-  
 zunik.



**San Martinetako tanborrada** aurten ere jaietako ikuskizun arrakastatsuenetako bat izango dugu. Tanborrero, fraile, japoniar eta abanderadek milaka bergarar bilduko dituzte herriko kaleetan. Hauxe burrundara!

**OSTIRALA**  
**13**

- Kontzertua:  
 - Elorrioko Gaztetxean  
*Dekadencia* taldea, 21etan.

**LARUNBATA**  
**14**

- Kontzertuak:  
 - Zumarragako Frontoian  
*Su Ta Gar* 22etan.

- Pastoral: Arrasateko  
 Monterron Jauregian  
*Harizpe* Pastoral 16etan.

- San Martin Jaiak:  
 - Goizeko 9.30etan Lore,  
 fruitu, gazta eta barazki-  
 en lehiaketa Plazan.  
 - Buruhaundi eta erral-  
 doien kalejira.

**IGANDEA**  
**15**

- San Martin Jaiak:  
 - Gaueko 11.30etan *Fa-  
 bula* orkestarekin dan-  
 tzaldia.

**ASTELEHENA**  
**16**

- San Martin Jaiak:  
 - Gaueko 10etan *Suzko  
 Erroberak* San Martin I-  
 kastetxean.

**ASTEAZKENA**  
**18**


- Mizpirualde egoitzan:  
 - Bingo, Aranzadi Ikas-  
 tolako Dantzataldea eta  
 Alai taldea arratsaldeko  
 5.30etan.

**FARMAZIAK**



- 13 Puy
- 14 Guallar
- 15 Guallar
- 16 Puy/ Gaeuz: Az-  
 koaga (Arrasaten)
- 17 Camacho / Gaeuz:  
 Español (Arrasaten)
- 18 Puy/ Gaeuz: Cor-  
 cuera (Arrasaten)
- 19 Guallar/ Gaeuz:  
 Irizar (Arrasaten)

**ZINEA**



**Delta Force 2**

- **OSTIRALEAN:**  
 10,30etan eta **IGAN-  
 DEAN** 5etan eta 7.30e-  
 tan.

**Pasion sin  
 barreras**

- **LARUNBATEAN** 5etan,  
 7.30etan eta 10.30e-  
 tan, eta **ASTELEHENE-  
 AN** 5etan, 7.30 eta  
 10.15etan



- IGANDEA:** Konde
- ASTELEHENA:** Bolintxo

**ANTIA** HARATEGIA  
 URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi  
 eta baserriko oilaskoak.

Matxlategi, Tfnoa: 76 15 09

**LAN ESKEINTZA**

**Umeak zaintzeko  
 neska euskaldun  
 bat behar da.**

Deitu: 76 29 81

Elisabet

**Pepelu**

Illeapaindegia

Zurradero 2, Behea.  
 Tfnoa: 76 43 07



# Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

# LXLIKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62  
BERGARA

# Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

# LIZAR

Altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

## Sua datorrela!



Euskal Herrian orain arte sute gehiegirik ez bada gertatu ere, orain dela aste batzuk intensitate desberdineko zenbait sute gertatu ziren. Bergaran ere, San Prudentzio auzoan, abuztuaren 30ean, beste sute bat gertatu zen, baina zorionez, ez zen oso larria izan.

Dirudienez, gertakari honen arrazoia, pinu batzuen gainera jauzitako tximista bat izan zen. Horrela suzko foku txiki bat eratu zen. Honetaz ohartzean, auzokide eta jabeak bertan lekutu eta bi egunetan zehar zaintzen aritu ziren. Denek arriskurik ez zegoela uste zutenean, sua berriz ere arinki zabaldu zen. Honen ondorioz jabeek suhiltzaile eta Ertzaintzari deitu zieten.

Sutea gertatu zen lurra aztertzean, ikusten dugu bertan dauden pista eta bide ezberdinak su-ebakitzaila bezala aritu zirela hondamen izugarri bat izan zitekeena geldieraziz. Eragin haundiena jasan zuen lursailean baso mixto bat dago. Bertan, zenbait espezie autoktono aurki ditzakegu, hala nola haritzak eta gaztainondoak, gehienak oso gazteak direlarik. Hauekin batera beste zenbait espezie ere aurkitzen dira eraginda, izaiak, haritz amerikarrak, eukaliptoak eta insignis pinuak hain zuzen.

Baso-suteak sortarazten dituzten hainbat zergati daude baina estatistikek diotenez, zergatien

%40a baino gehiago ez jakin edo zehaztu gabeak dira. Apropos sortarazitako suteak % 36a dira eta arduragabekeriaren ondorioz sorturikoak % 15a. Bestalde elementu natural edo ustekabeen sorturikoak (tximista) % 5a besterik ez dira.

Baso-suteen ondorio ekologikoak oso larriak dira. Sutearen ondoren euriek landare geruza eramaten dute beraiekin batera eta babesik gabeko lurra berehala erasotua izaten da erosioagatik, honen ondorio larriena desertizazioa delarik.

Bitartean euskal administrazioak ez du ia ezer egiten: ez du suteen prebentziarako kanpainarik egiten, azkar hasi eta autoktonoak ez diren espezieen monokultiboa bultzatzen du.

Eguzkik uda honetan eta datorren udazkenean zehar (Euskadin sute gehienak gertatzen diren garaia) prebentziozko kanpaina bat egiteaz gain, lur antolaketa arrazional baten alde abokatzen du.

EHNEK eginiko proposamenarekin bat gatoz. Proposamen hau baso politika oso eta aurrerakoi baten alde dago. Honez gain, poliki hazi eta autoktonoak ez diren zuhaitz motentzat diru-laguntzak ematearen alde ere ageri da. Era honetan monokultibo politikari aurre egiteko gai izango litzateke pausoz-pauso ordezkapena lortuz. Gure lurra defenda dezagun!

Eguzki

Tiiira ba!

Josu Okina





### □ Txintxerriña

Elkarte honek datorren asteartean *ludotekako* atea zabalduko ditu herriko haur guztientzat, eta izen ematea hilaren 17tik 27ra bitartean egin beharko da, arratsaldeko 5.30etatik 7.30etara. Haurren ordutegiari dagokionez, eskolaurretik lehenengo mailararteko haurrentzat 5.30etatik 6.30etara, eta 2. eta 6. maila bitarteko haurrek berriz, 6.30etatik 7.30etara.

### □ Eguzki

Bergarako *Eguzki* dei egiten du *Leitzarango* Bailararen alde irailaren 15ean eguadiako 12etan *Bi Haitzetan* izango den kontzentrazioan eta irailaren 21ean Donostian egingo den manifestazio nazionalen parte hartzeko.



## Eskolara!!

Dagoeneko amaitu dira oporrak gaztetxoentzat ere. Astelehenean Aranzadi Ikastolan, eta ostegunean eta ostiralean Mariaren Lagundia eta San Martin ikastetxeetan, eman zioten hasiera 91-92 ikasturteari, bai eskolaurrekoek eta baita OHOkok ikasleek ere. Momentuz klaseak goizez bakarrik izango dituzte, San

Martin ostean *gogor* ekin hasi beharko diotelarik. Lagunartean oporretako kontuak izan dira nagusi, eta txikienen artean ez dira negarrak eta oihuak falta izan, beraien gurasoen laguntzaz klaseratzeko orduan. Zentru ezberdinetatik azaldu digutenez, aurten ere nahiko nabaria izan da eskolaurreko matrikulen beherakada.

### □ HHI (EPA)

*Bergarako Helduen Heziketa Iraunkorrerako* Eskolak dagoeneko zabaldu du 91-92 ikasturterako matrikula epea. *Irakaskuntza ofiziala* eta *dohainekoa* da eta euskaraz zein gaztelerez ikasteko posibilitatea eskeintzen da. Irakurtzen edo idazten ikasi edota Eskolako Graduatua lortu nahi ezkeror Irizar Etxeko lehenengo pisuan izena eman dezakezue irailaren 25arte.

### □ Pastoral

AED, Arrasateko Udala eta Maritxu Kajoi Batzordeak antolaturik, bihar larunbata, hilak 14, Arrasateko Monterron Jauregian *Harizpe Pastoral* antzestuko da arratsaldeko 4retatik aurrera.

## Liga martxan

Larunbatean, Labegarrietako Kiroldegian, hasiera eman zitzaion Bergara K.E.-k antolatzen duen futbito txapelketaren edizio berri bati. Aurtengoan Bergarako 32 taldek eta 400 bat gaztek parte hartzen dute.

Partiduak liga eran jokatuko dira, eta lehen fasea amaitu bezain laster hainbat kanporaketa egingo dira irabazlea eta gainerako postuak erabakitzeko. Espero dezagun noizbait partidu onak ikusi eta *Michel* bezalako jokalaririk ez izatea, badaezpada.



### LAN ESKEINTZA

**Umeak zaintzeko neska euskaldun bat behar da.**  
Deitu: 76 45 52  
Ana

# Kabia

## Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



**□ Kofraixak**

Osintxuko jaietan egin zen *zozketak* oraindik ez du irabazlerik. 3.038 zenbakia duenak lagun batekin *Menorcara* bidaia egiteko aukera izango du.

**□ Euskaltegia**

*Udal Euskaltegiak* 91-92 ikasturterako matrikula epea zabaldu du. Maila guztiak emango dira eta izena emateko epea irailaren 20an bukatuko da.



## Bergarari dohaintza

*Jose Maria Sañudo Lasagabaster* Jaunak Bergarako herriari egin nahi izan dion dohaintza San Martin egunean gauzatuko da Pleno Aretoan. Dohaintza honi esker, hainbat liburu, koadro eta eskultura jasoko ditu Udalak; liburu gehienak historia eta pinturari buruzkoak ditugu eta koadroen artean *Miguel Okinak* eginiko erretratuak dira nagusi. Eskulturaren berriz, *Lorenzo Askasibar* ek egin zuen *Simon Arrietaren* busto orijinala eskuratuko du gure Udalak.



## HB kanpoan

Begarako *Herri Batasunak* EAJk Gobernu Batzordetik kanpo utzi duela salatu zuen asteartean. Neurri honen ondorioz, HBk ezin izango du Udalak hartzen dituen erabakien % 80a ere eztabaidatu. Koalizio honetako zinegotziek jakitera eman zutenenez, "erabaki honekin, EA eta HBri botua eman dieten 3.400 bergarar udaletik kanpo uzten dira; eta gainera, Bergaran edozein alderdi Gobernu Batzordetik kanpo uzten dela lehen aldia da".

**□ Mendi irteera**

*Gorla Alpino* eta *Pol-Pol Mendizale Taldeak* irteera bat antolatu dute datorren iganderako, hilak 22, Zeanuri, Lekanda eta Orozko bitartean. Irteera goizeko 6.30etan Beheko Plazan.


**□ Odol ematea**

Datorren asteazkenean, hilak 18, arratsaldeko 7etan zita berri bat izango dute odol emailleek Seminarioan duten lokalean.

## TOKI-EDER Taberna

**Pintxoak eta eguneko bazkariak**

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84



**KONDE**  
PANADEROKUA  
Burdiñate 1  
BERGARA



## IRAKASLE ESKOLA

E s k o r i a t z a  
G i p u z k o a

Irakasle Eskola honek zera jakin erazten du:  
1991-1992 ikasturterako matrikulazio-epea zabalik dagoela

### Espezialitateak:

- ZIENTZIAK
- HAUR-ESKOLA
- EUSKAL FILOLOGIA
- INGELES FILOLOGIA

Informazioa: Irakasle Eskola. Tfnoa: 943 / 79 04 40  
Orduetgia: 9.00-13.00



# Gora San Martin!!

Heldu dira bai *San Martinak* eta hoiekin batera tanborradak, dantzaldiak, buru haundi eta erraldoiak, su artifizialak..., jaigiroa azken finean.

Asteburu osoan zehar izango ditugu ekitaldi ezberdinak gure herriko kale eta txoko guztietan; larunbatean esate baterako, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Udal Txistulari Bandak alaituta, buru haundi eta erraldoien kalejira izango da. Gauean berriz, Frontoian omenaldi bat egingo zaio dantza sueltua bultzatu zuen *Moises Aspiazu* zenari.

Igandean berriz, diena Arrasateko dultzaineroekin, txirrindulari lasterketa, margolari lehiaketa, haurren jolasak, Kalejira, kale antzerkia... eta gaueko 10 t'erdietan *Danborradaren* irteera Seminarioan. Handik Plazara, Fabula orkestrarekin dantzatzera.

San Martin egunean azkenik, goizean sokamu-



turra herriko kaleetan eta ondoren haurren jolasak Seminarioan. Meza nagusia amaitu eta, 12 t'erdietan, Udaletxeko Pleno Aretoran *J.M. Sañudo Lasagabaster* jaunak Bergarako herriari egindako dohaintza jasoko da eta ordu batean, Espaloian, Musika Bandak kontzertu bat eskeiniko du.

Arratsaldeko 6 t'erdietan haurren tanborrada eta, jaien azken txanpa bezala, gaueko 10etan su artifizialak San Martin ikastetxean.



## Baserritarren txanda

Ohitura denez, aurten ere *Fruitu, Barazki, Lora eta Gazta Lehiaketa* izango da San Martinetako egitarauaren ekintza nagusietako bat.

Baserritarrek, goizeko 10etatik aurrera, beraien ortuetan jasotako produktuak erakutsiko dituzte Beheko Plazan. Zortzigarren edizio honetan lore lehiaketak bi sail izango ditu; batetik lore moztuen saila eta bestetik etxea apaintzeko erabiltzen diren lorontziena.

### □ Aurkezpena

Gaur ostirala arratsaldeko 7etan *Jesus Arpalek* Bergarari buruzko *Ikerlan Saila* Kolekzioaren aurkezpena egingo du Udaletxean. Bilduma honetan gure herriaren azterketa sakona egiten da.

### □ Krossa

Udal Kirol Zerbitzuak eta Atletiko Zaleak taldeak antolatuz, bihar arratsaldeko 6retan II. *San Martin Krossa* jokatuko da. Irteera Beheko Plazan, eta kategoria ezberdinak izango dira adinen arabera.

## ALKATEAREN AGURRA:

Lehenengo aldiz eta San Martin Jaien atarian benetan pozgarria zait agurrik beroena herritar guztiei zabaltzea.

Alaitasuna izan dadila nagusi gure herrian, anaitasunez onarturik egun hauetan gurekin batera jaiak pasatzera datozen guztiak, bat eginik eta pakean.

Gogoan ditugu une honetan herritik kanpo urrin dauden bergararrak eta beraientzat ere zabaldu nahi nuke nire agurra.

Agur eta jai zorlontsuaki



VICTORIANO GALLASTEGI ALTUBE



# Moises Azpiazen urratsak jarraituz

*Moises Azpiazu osintxuarra kontsidera genezake Bergaran dantza askatua egin dutenen aintzindaria. Berak eta Karmen Abiok, sekula ezagutu den dantza askatuko bikoterik onena osatzen zutela diote dantzan egiten ikusteko aukera izan zutenek.*

*Osintxuko dantzariak hasitako lanari gogor eutsi dio Dani Azpiazuk eta Moises Azpiazu taldea osatzen duten bost bikotekin lanean dihardu, Aranzadi Ikastolako gela baten.*

Dani Azpiazuk orain dela zazpi urte hartu zuen Moises Azpiazu bere osabak, Bergarako gazteei urteetan dantzan erakusten egindako lana jarraitzeko ardura: "Eduarne Arzelus, Joseba Aseginolaza, Eduardo Murua-mendiaraz, Aintzane eta Jaione Arana eta ni neu hasi ginen, baina lan arazoak zirela medio neu geratu nintzen taldeko buru bezala» azaldu digu Danik entsaiu gelan. Xamatz dantza taldearekin txandakatuz astean hiruzpailau egunetan entsaiatzen dute Aranzadi Ikastolak utzitako gela batetan.

## Ehunetik onenak

Moises Azpiazu Dantza Taldea ikastolako ehun haur ingurutik aukeratutako hamar onenek osatzen dute: "arratsaldeko 5etatik 6etara ehun bat neska-mutiko etortzen dira sueltuan ikastera. Hortik onenak aukeratu eta txapelketetarako prestatzen ditut. Lan gogorra da, astean hiruzpailau ordu jarduten bait dugu. Dantza berez gogorra bada, are ge-

hiago sei urtetik hamaseira bitarteko haurrentzako".

Gabilondo anai-arrebak (16 urte), Iker Basauri eta Olatz Gabilondo (13), Ion Aranburu eta Maite Lazkano (11), Xabier Egidazu eta Irantzu Lizarralde (9) eta Zigor Aiuka eta Aroa Agirrezabal (7) bikoteek osatzen dute Moises Azpiazu Dantza Taldea. Urte

guztian zehar Euskal herri osoan antolatzen diren dantza txapelketetara begira lan egiten dute.

## Sari ugari

Txapelketak dira dardarik gabe dantza askatuaren saltsa. Urtean 30 inguru izaten dira eta honez gain beste 15 eki-

taldi inguru antolatzen dira Euskal herriko bazter guztietan.


Honek prestakuntza bereza eskatzen du: "kontutan hartu behar da gure bikoteak onenen artean ibiltzen direla beti. Lehen bezala, orain ere bergarar dantzariak ohorezko tokian aurkitzen dira dantza askatuaren munduan. Eta goi mailan ibiltzeko sakrifizio haundia behar da. Urtarrilean hasi eta uda partera arte izaten dira hilabete gogorrenak. Bergarako jaietan 14 urtetik beherakoentzako Euskadiko Txapelketa jokatzeko da eta ordurako puntu egokian egon beharra dago".

Ion Aranburu eta Maite Lazkanok osatutako bikotea Euskadiko Txapeldun izan zen orain dela bi urte. Iaz eta aurtun bigarrenak izan dira eta honez gain Bizkaiko Txapeldunak dira. Besteak ere aurreneko postuetan ibili dira beti; hori dela ta etxeko apalak garairikurrez beteta dauzkate.

Emaitzak ikusita maisua pozik egoteko moduan dago. Danik, dena den, oraindik gehiago eman dezaketela uste du: "Txapelketetan urduritasunak jan egiten die sarritan eta dakitena baino gutxiago erakusten dute. Baina normala da, gazteak dira oraindik eta urteak pasa ahal beldurra galtzen joango dira..."

## Komunikabideen laguntza

Urtean 45 ekitaldi inguru antolatzen badira ere, dantza askatuak mezetako oihartzunik lortzen ez duela uste du Danik. Horretan komunikabideek zeresanik ba-







Dani Azpiazu bere ikasleekin batera

dute... "ETBk, adibidez, Herri Kirolak, pelota, estropadak e.a. asko bultzatu ditu eta dantza saioak, ostera, ez dituzte ia inoiz telebistan botatzen. Dantza ekitaldiak ikustera etortzen direnak sarritan aspertuta alde egiten dute ulertzen ez dutelako. Horregatik komunikabideek, eta batez ere

telebistak, horrelako saioak gehiago erakutsi beharko lituzkete. Pena da hain ekitaldi ikusgarriek oihartzun haundiago ez izatea".

Dantza guztiak ikusgarriak badira dantza askatua politenatarikoa da. Dantzarien mugimendu lirainak ondo zaindutako jantziekin e-


dertzen dira: "behin txapelketatara aurkeztuz gero erropari garrantzi haundia ematen zaio. Abarkak, galtzak, gonak..., gizonetzkoen traje baten prezioa 20.000 pezetatik gorakoa izan daiteke eta emakumezkoenak oraindik garestiago".

## Gogorra baina ona

Moises Azpiazu o-sintxuarrak dantzan egiteari utzi eta Bergarara bizitzera etorri zenean, Aranzadi ikastolako haurrei erakusteari ekin zion. Ikasle azkarrek laister azaldu zuten maisuak erakutsitakoa: Xabier Mujika eta Aintzane Arana, Eduardo Murua-mendiaraz eta Jaione Arana, Joseba Aseginolaza eta Miren Berasategi, Pardina anaiarrebak..., dantza txapelketa ugari irabazi dute. Beste hainbeste esan genezake Juntxo Urbietaren ikasle izan ziren Mikel Etxaniz eta Ana Agirre, Dani Azpiazu eta Amaia Agirre eta Laskurain anai arrebei buruz.

Orain gure artean ez badago ere, nabaria da Moisesen eragina. Bera-ekin ibilitakoek honela gogoratzen dute: "gogorra baina ona"

# Moises Azpiazuren omenezko VII. Dantza Askatuko Txapelketa.



### Egitaraua:

- 15 urtetik gorakoentzat dantza txapelketa.
- Oñatiko Oñatz Dantza Taldearen saioa.

### Tokia:

Bergarako Herriko Pilotalekua

### Ordua:

Gaueko 10.30ak





**Patxi Kortabarria,  
Itxurbe,  
Mikel Aristi  
eta  
Aitor Azkarate**  
 Irlandan ibili dira.  
 Handik bidali  
 diguten postala  
 izan da gure ustez  
 orijinalena.  
 Sari hau zein  
 txotxolok irabaziko  
 ote... eta  
 antzuolarrak  
 izan behar.  
 Hortxe  
 ibiliko dira guk  
 emandako  
 10.000 pza  
 nola gastatu  
 ez dakitela.



IRELAND  
 Kaixo mokolos:  
 Hemen gae lau Antzuolako Irlandan etzanda.  
 Enterau ga postalen konkursa txotxolo bat  
 organizau duzuela. Ez badu irabasten,  
 jo ta sua emongo joxau erredak sinuai.  
 Jun zaitte kaketara!



Patxi Kortabarria.  
 Itxurbe.  
 Mikel Aristi.  
 Aitor Azkarate.

zuek tontuak zintemé  
 guk utzuliko dugun  
 aurrekoaren  
 esanahia:  
 UDA IRLANDAN  
 (et edarria)  
 Hokolak bastante mejoran  
 dabe itxuraz. Ez izakeraaz.  
 badakizugu ura R-ku dala  
 eta zuek??

Berrigara Astekaria  
 Bergara (Gipuzkoa)  
 BASQUE COUNTRY  
 N-SPAIN



**Mujika**  
**Jantxidenda**  
 Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

**GIARTZU**  
 Dermoestetika osoko zentroa

Laser izpien bidezko errekupeazioa      Estetika Tramentuak  
 Errekupeagailu elektrikoa              Larruazal garbiketak  
 Korrente kapazitatiiboak              Kosmetika espezialiatua

Boni Laskurain 3, Etxabea, Tfnoa: 76 35 71



Postal  
a  
rzkien  
atako  
auak



Argazki hau etartzeko herritik mugitu beharrik ez dela pentsatzen duena oker dabil.

**Esperanza Floresek**  
Palma de Mallorcan dagoen

*El Pueblo Español*ean atera zuen argazki hau.

Bergarako udaletxearen erreprodukzioa da.



**Jaime Garcia Murgiondori** eman diogu postal politenaren saria. Guatemala eta Mexico aldean ibili da eta hiru postale bidali dizkigu. Hona hemen saritua.

*Casa de las imágenes*  
Bucaramanga, Colombia  
BARRIGARA ASISTENTE  
20.570 BERRARA  
G. PUEBLO  
ESPAÑA  
Foto: José Angel Rodríguez  
IMPRESO EN MEXICO POR FOTOGRAFIA TONER, S.A. DE C.V.

**LAN ESKEINTZA**

**BERRIGARA**ko publizitate arduradun posturako izena emateko **epea asteartean bukatzen da.**

**ederTU**

**ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK**  
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 **BERGARA**



**LAN ESKEINTZA**

*Umeak zaintzeko neska euskaldun bat behar da.*

Deitu: 76 45 52  
Ana



**ETXE-  
-AUNDI**

Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**Soliveri**

**ETXEA**

Gertatutako  
janggalak  
eta erregimenekoak

Zurradero 2, Tfnoa: 76 58 83

**San Martinak Bergarako jairik onenak?**



Nere Arenaza  
17 urte, ikaslea

Neri pazkuetakoak gehiago gustatzen zaizkit, jende gehiago ibiltzen delako.



Olga Guillén  
31 urte, etxeoandrea

Pazkuak baino atseginagoak iruditzen zaizkit, trankilagoak direlako, burrundara gutxiago egoten delako.



Teresa Gabilondo  
53 urte, etxeoandrea

San Martinak hobeak dira gauza asko daudelako ikusteko: tanborrada, suzko erroberak, barazkien lehiaketa...



Ander Telleria  
17 urte, ikaslea

Pazkuetako jaiak nahiago ditut egun gehiago direlako eta hobeto pasatzen dudalako.

**1991-92  
Ikasturtea**



**IKASI  
AKADEMIA**

✓ **KLASE PARTIKULARRAK**

OHO - BBB - UBI - LH - IEE (REM) - ESKOLA GRADUATUA - UNIBERTSITATERAKO SARBIDE IKASTAROAK.

✓ **HIZKUNTZAK**

- INGLESA
- ALEMANA

- Haurrentzako hasiera ikastaroa 6 urtetik gorakoentzat  
- Hizkuntz Eskola Ofizialerako azterketetarako prestaketa.

Matxiategi 34, 1.C Tfnoa: 76 40 33 BERGARA

Kalebarren 22, 1. Tfnoa: 75 20 59 SORALUZE





## Michelen zakila

Madrideko jokalaria aztoratu egin zaigu azkenaldi hontan eta zirriki zarraka ari zaigu. Bagenekien futbola gizonen kirola zela baina, tira, lehiakidearen gizontasun frogak kontrastatzea zelai erdian ez zait iruditzen joera normala. Are gehiago, ez nuen Madrideko jokalariairengan horrelako zaletasunik ezagutzen, nahiz eta Michelen jokaerak ez harritu, bere nortasun belaska kanpora begira behintzat, futbozale guztioi ezaguna zaigu eta.

Aldiz, jokalaria kolonbiarrak oraindik harrিতuta jarraituko du, etorri berria denez gero, Bernabeun erabiltzen diren jokabideekin. Eskenatokiaren beldurra zikirapeneko bihurtu ote da?. Auskalo.

Dena dela, etorkizunerako oharterazita gaude: zuriaren aurkako gorputz borrokan erne beharko dute futbolariak, edota potrobabesgarriak jantzi. Michel sailduaren lizunkeriak ez bait dauka mugarik.

Kontuak kontu, arazo bat gelditzen zaie konpongai zuriakideei, aldageletakoa hain zuzen. Beharbada, hortan datza Bernabeuko aldagelen istorio mitikoa, oraindik ezagutarazi ez dena.

**Iñigo Urrutia**



## Astopistatik autobiderra

Iparagirrek Euskal Herriko mendi eta itsaso bazterrei kantatzen zien garaian zen ederra gure ingurua. Baina oraindik ez ziren asmatu zementua eta asfaltua.

Oraindik ez zen pinurik eta haritz, pago eta antzeko zuhaitzak ziren nagusi, errekek ere garbiak zeuden eta baserrietaz aparte etxe gutxi eta txikiak ziren herrietan.

Gaur egun ingurugiroa zaindu beharraz ohartu da mundua. Horrela Gipuzkoako ingurune natural nagusia eta bakarra den Leizaran bailararen erditik autobidea pasatuko zela jakitean, gizarteko hainbat sektorek Diputazioaren asmo honen aurkako jarrera azaldu zuen. Hala ere, agintari eta erakundeek, proiektua aurrera eraman zuten.

Orain, Diputazioaren proiektuaren zati handi bat mantendu eta Leizaran bailara, neurri handi batean behintzat, alde batera uzten duen bidea topatu da. Lurraldea proiektua egokiena dela uste dudaren, ingurugiroan eragin eta kalte ekologiko txikiagoa du irtenbide berri honek.

Eta pausu garrantzitsua da, beste arazo batzuei ere herritar talde eta mugimendu sozialekin elkarrizketaren bidez irtenbidea emateko. Herri xehearen eritzia ere kontutan izan behar da eta ez urtean behin botua eskatu bakarrik. Politika alde batera utziaz, zain dezagun gure lurra lehen ere nahikoa hondatuta dagoen mundu honetan.

**Jon Altuna**

**ERREKI**

**Erretegia**

**Berezitasunak:**

**Bixigua eta txuletak**

**Fraleskozuri Enparantza**

**Tfnoa: 76 38 51**

**HALTZARI**

**Fagor altzarien  
banatzailea.**

**Sukalderako altzariak**

**BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57 BERGARA**



**POL - POL TABERNA**

**Tfnoa: 76 48 51**

**DEPORTIVO TABERNA**

**Tfnoa: 76 01 51**



## Zeuk galde




**32.** Nola garbitu eta lehortu daitezke barrutik botila, tarro eta antzekoak?

Detergentez garbituz gero, askotan ez da erraza izaten aklaratzea. Gainera zenbait mantxa kentzea zaila izaten da detergente hutsez. Hori dela eta, badaude beste bide batzuk halako ontziak garbitzeko. Arto, gari edo antzeko aleak erabil daitezke edo arraultza oskol txikituak edo baita patata birrina ozpin pixka batekin nahastuta.

Urarekin botilan sartu eta gogor eragin. Hala kenduko zaizkio zikinak.

Barrutik lehortzeko badago modu polit bat: garbitu ondoren bete ontzia ur beroarekin goraino. Gero buelta eman eta husten den bitartean, kanpokaldea ur hotzetan jarri topera. Barruan geratzen diren ur tantak laster lurrunduko dira.



### □ Jubilatu da

Auskalo zenbat injekziño jarri dituen **Mertxe Orueta** praktikanteak azken 45 urteetan. Kontua da orain jubilatzeko ordua heldu zaiola eta hori dela ta **Anbulatorioko** lankideek afari bat eskeini zioten joan den ostiralean. Alaitsu, oraindik ere ahal duen neurrian laguntzeko prest dagoela aitortu zigun...Esperientzia faltagatik ez da izango!



# ANTXONI

## Jatetxea

### Ondo pasa jaiak

FrAiskozuri 7, Tfnoa: 76 20 40 BERGARA

# BRIKOLAIA AUTOMOZIOA

## Turismoak, kamioiak, etab.

Bolu, Tfnoa: 76 44 04 BERGARA



**□ Lazkano seiluetan**

Jesus Mari Lazkano margolari bergararren azken lana, galeria inportanteenetan ikusgai izan beharrean, oraingoan egunero erabiltzen ditugun seiluetan aurki dezakegu. 92an Madril Europako Kapital Kulturala izango denez, *Casa de Moneda y Timbre* delakoak enkargu bat egin zion Lazkanori lau margotan Madril labur zezan. Honek Espainiako Bankua eta San Isidro Institutua arkitekturatan, eta Alvaro de Bazán eta Apoloren Iturria eskulturatan aukeratu zituen eta abuztutik kalean dira seilu horiek. Beraz, Lazkanoren lanaren miresleek eta seilu kolekzionistek ere badute zeren atzetik ibili...



J.M. Lazkanok egindako bi seilu



**□ Beligala ilakultzen**

Japoneraino iritsi dira uda honetan *Berrigara* eta *Arrasate Press* astekariak. Argazkian ikus daitekeenez biek harrera bikaina izan dute japoniar gazteen artean eta nork daki, euren kopiatzeko zaletasuna ikusirik, ez ote ditugun laister *Berrigara* eta *Arrasate Pressen* bertsio japonésik izango.


**Zertan dihardute ba?**

**ASIER GARITANO**



Bilbao Athletic-eko 21 urteko aurrelari bergararrak hasiera bikaina izan du aurtengo Liga Txapelketan; joan zen igandean Txikik bi gol sartu zizkion Betis taldeari San Mamesen. Ea Saezek aurtengoan lehen ekipora igotzen duen...

**FELIX BEITIA**



Asteleheneretik igandera bitartean Suizan izango dugu 38 urteko bergarar hau bertan jokatu den Europako belar gaineko Herri Kirolen Txapelketan epaile internazionalaren karneta lortu nahirik.

**FS**   
oto istema



Tfnoa: 76 00 50 **ARGAZKIAK ORDUBETEAN** Tfnoa: 76 00 50

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41



## Hau dok barreguria !!

Buztingorri erdi tontua aspaldiko partez agertu zan konfesatzera eta abadiak ikusi orduko sekulako saldua egin zotsan. "Erdi tontuak pe izaten jittuek animako kezka" ziñuan bere artian.

- Ze diñok pa, Buztingorri?

- Badakizu ba, erdi tontua be banaiz eta inoiz okerreko bidiak e-kartzen nau.

- Zela? Okerreko bi-daia dok hau, ala?

- Hau ez, ni hona e-kartzen nabena, pekatura. Erdi tontua be banaiz eta.

- Bai, bai eta zer?

- Lantzian behin gau illuna be izaten da ta... badakizu ba, erdi tontua be banaiz eta...

- Bueno, bueno, eta zer?

- Ba inoiz, gau illuna danian, auzoko eskortatik etxekora ardiren bat ero beste pasau izan dot erdi konturatzeke. Badakizu ba, erdi tontua be banaiz eta...

- Eta erdi tontua izanik, noizian behin etxak bururatzen zeuen esparrutik auzokora ardiren bat pasatzia?

- Ez jauna ez, holakoik ez jangoikuan izenian. Hori eingo baneu akabo ba, orduan tonto osua izango nintzake..

\*\*\*\*

J.M. Elexpuru



## Antzinako kontuak

### Karakate eta Elusu bitarteko trikuharriak (1)

Zein ibilaldi ederra den Agarreburutik Karakatera bitartekoa, gainik gain, Pol-Poletik pasatuz. Bide hori egin duenak ikusiko zituen trikuharriak (dolmenak) edo beren arrastoak behintzat.

1921ean aztertu zituen Joxe Miel Barandiaranek. 16 trikuharri dira danera eta oso hondatuta daude. Bi jentilarri (menhir) ere badira, Oilarraitz eta Garbe-n, biak Plazentziako lurretan.

Jakina denez, hiru harri handik, bi zutiko eta zeharkako batek, osatzen dute trikuharria, nahiz eta badiren harri gehiagokoak ere. Barruan hildakoa lurperatzen zen, pertsonaia inportanteren bat ziur asko, askotan tresna eta apaingarriekin: brontzeko eta harrizko gezi-puntak, eraztunak (urrezkoak ere aurkitu dira), buztinezko lapikoak, e.a.

Gero harriz estaltzen zen gehienetan. Hemen

harri pila edo tumulo hauek ageri zaizkigu ia bakarrik. Zutiko batzuk edo gainekoren bat lurrean botata, gehienera ere, baina ia denak zisko eginda. Aintzinako ustea da altxor haundiak zeudela trikuharrien azpian eta horregatik altxor-bilatzaileek harrotu izan dituzte behin eta berriro.

Eneolitiko eta Brontze aroak (2.000-1.000 Kristo aurretik) dira trikuharriak. Zibilizazio zeltak guregan izan zuen eraginaren ondorioztat jotzen dira. Artzai lurretan agertu ohi dira eta pentsa dezakegu artzantza-leku aberatsa izango zela Irukuru-tzeta inguru hori.

Trikuharri guztiak, bat izan ezik mendi bizkarrean daude: Agarreburu, Keixeta, Irukurutzeta, Kurutzebakar, Pagobedeinkatua, Atxolin,...

J.M. Elexpuru

*Nahikari*

**Txema Muñoz**


argazki  
erakusketa

"Ortopedia  
Subjetiboa"

Iraila osoan zehar

Mahasterreka 20, Tfnoa: 765771

**A**



ARRASATE

**ELKORO  
ANTENAK**

✓ **TB Satellite bidez**

✓ **Telebanaketa**

79 18 86





Iñaki Martínez, Xabier Mujika, Asier Ziarsolo, Antonio Muñoz, Fernando Moretón, Aniotz Gabilondo, Angel Mari Iñárra, Amadeo Corrius, Mikel Garitano eta Iñaki Arbuluk osatuko dute gizonezkoen talde nagusia. Entrenatzailearen eritziz, "kalitate eta altuera haundiko taldea osatzea lortu dugu. 1,90 zentimetrotik gorako lau jokalariditugu eta beste hiruk, iaz Goierri taldearekin, 3. maila nazionalean, jolastuzuten. Talde honekin 3. mailara igo dezakegu"

**Emakumezkoak  
gogor**

Ondo baino hobeto ari direnak emakumeak dira. Talde nagusiak iaz bezala aurten ere, 2. maila nazionalean jokatuko du. "Maila nazionalean ari den Bergarako talde bakarra da", esan digu Javi Garmendia, Bergara K.E.ko saskibaloi saileko ordezkariak. Talde guztiek, gutxienez mailari eusten badiote pozik geratuko dira: "gure helburua Bergaran dagoen saskibaloirako zaletasuna berpiztea da. Kiroldegia bete nahi dugu. Jendea partiduak ikustera etor dadila".

Milioi bateko aurrekontua dute zortzi talde aurrera ateratzeko eta batez ere, galdutako ilusioa berreskuratzen.

# Ilusioa berpiztera

Azken urteetan arazoak izan ondoren, Bergara K.E.ko saskibaloi saila berregituratu egin dute aurten eta ilusio haundiz entrenatzeari ekin diote berau osatzen duten zortzi taldeek.

Emakumezkoetan lau talde gizonezkoetan eta beste hainbeste gizonezkoetan izango dira federatu mailetan jokatuko duten ordezkari bergarrak. Gizonezkoetan Jose Ignacio Oyarzabalek zuzenduriko seniorrak, J.I. Familiar eta J.M. Etxanizen juniorrak, Alex

Gardokiren jubenilak eta Ismaelek entrenatuko dituen kadeteak arituko dira. Emakumezkoetan, berriz, Antonio Ot-ek entrenatutako seniorrak, J.I. Familiarren jubenilak, Ramonen lehen mailako kadeteak eta Iñigo Pizarroren 2. mailako kadeteak.

Gizonezkoetan azken bi urteetan maila nagusietan talderik egon ez bada ere, aurten Jose Ignacio Oyarzabalen eskutik ekipo indartsua osatzea lortu da eta mailaz igozteko asmoaz hasiko

dute liga txapelketa iraila bukaeran. Honez gain iaz ez zegoen 2. mailako kadetea osatu dute aurten.

*'Larunbatero  
kiroldegia  
bete nahi dugu,  
jendea  
partiduak  
ikustera etor  
dadila'*

BERGARA 76 32 20

ELGOIBAR 74 02 36

ANTZUOLA 78 70 30

## THE KENSINGTON SCHOOLS OF ENGLISH

Izen emateko epea zabalik. Baldintza ezin hobekak 1991-92 ikasturterako.



Gipuzkoako Hizkuntz Ikastegien Elkarteko kideak. CAMBRIDGE unibertsitateko P.E.T.azterketen antolatzaileak.





### *San Martinen kanonizazioaren lehen mendeurrena*

**1** 962an eta 1963aren hasieran San Martin santu egin zuteneko mendeurrena ospatu zen Bergaran. Hemen agertzen den argazkia, 1963ko otsailekoa, ospakizun haien amaiera ekitaldietakoa da. Ekitaldi horietara gonbidatu zituzten beste batzuren artean Japongo enbajadoreak, eta Calahorrako Gotzaia. Horiekin batera, erretratuan, *Cristobal San Gines* epailea eta *Luis Laskurain* Bergarako alkatea agertzen dira. Gotzaiaren eta alkatearen artean ageri dena *Don Meliton* izan daiteke eta enbajadorearen eta andrearen artekoa *Don Pedro*. Ekitaldien berri emanez ateratzen zen orritxo batetan azaltzen denez, ospakizun bikainak izan omen ziren.

*Migel Mendizabal* Jesuitak japonesezko berba batzuk egin omen zizkien enbajadoreei Meza Nagusiko sermoian "en japonesez dulce y fluido" diotenez. Zurragak monumentu argiduna ere orduan inauguratu zen eta herritarrak katalajuekin begira egon omen ziren meza garaian. Koro eta banden hainbat saioren ondoren, amaierarako, bazkari ederra, pelota partiduak eta *Umore Ona* abesbatzaren ekitaldia Errotaldeko Palazioan, hura izan bait zen enbajadoreen "residentzia ofiziala".

*Estepan Plazaola*

*Argazkia: Mari Carmen Larrañaga Loidi*

# BERROYA, E. A.


INPRENTA

OFFSET - TIPOGRAFIA  
ENKUADERNAZIOA

Komenio 2

Tfnoa: 76 00 01

BERGARA







## ETXEBIZITZA

• Pisua salgai Koldo Elizalde 20an. Deitu gaueko 8etatik aurrera 764252

• Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823.

• Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.

• Pisua salgai; garaje eta guzti. 763911.

• Baserri bat hartuko genuke alokairuan. Tfnoa: 763431.

• Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.

• Apartamentua salgai Elgetan. 768157 gauez. Prezioa: 5.000.000

## LANA

• Uberan neska euskaldun bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 764149

• Umeak zaintzeko neska euskaldun bat behar da. Deitu: 762981. Elisabet.

• Neska euskaldun bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 765190. Gaueko 8etatik aurrera.

• Umeak zaintzeko neska euskalduna behar da. Deitu: 762740/764552

## DENETARIK

• Funda azuldun be-taurreko graduatuak aurkitu dira Ariznoa kalean. Deitu: 76 15 36

## SALDU-EROSI

• 28 urteko pinudia salgai. Terreno eta guzti. Tfnoa: 761201.

• Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 862071era.

• Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorea, 3 pulgadako disketera, 30 joku eta oso merke. Tfnoa: 7625 12

• Karrerako bizikleta polita eta arina salgai. Ez da garestia. 763269.

• Reflecta Diamator AF diapositiba proiektorea salgai. 762230 gaueko 9etatik aurrera.

• Hiru urte dituen Mobylette bat salgai. Prezio ona. 763276.

• 7 pertsonarentzako aldogoizko kanping bat salgai. Prezioa 6.000 pzata. 761634 Arantzagatik galdetu.

• Vespa 200a salgai, egoera onean. Prezioa 180.000 pzata. Deitu 7616-39 tfno.ra.

• Karabana berri-berria salgai. Deitu: 761388.

• Parapente STROM-25 berri-berria salgai. Deitu: 763738.

• Skate-ko patinete berri-berria salgai. Tabla Hard-Times, ejeak Gold-Wine eta erruberak Mini-Rat. Deitu: 762682.

## Joandakoak

*Sabino Aranzabal*

74 urte, irailak 7an

*Teresa Mesonero Hernandez*

84 urte, irailak 10ean

*Luis Intxausti Arostegi*

85 urte, irailak 12an

*Miguel Muruamendaraz Alberdi*

80 urte, irailak 11an

## Etorri-berriak

*Deine Guisasola Alarcon*

abuztuaren 20an

*Mariñe Otaño Basterra*

abuztuaren 23an

*Idoia Martinez Herrera*

irailak 5ean

## AUTOPULLMANS ARABA Autobusak

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

**ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70**

## MAKAILO

Makillau **ETXEA**  
kazuelak  
gertatzen ditugu

Ibargal 15






## EUSKARA IKASTAROAK 1991-92

Maila guztiak: Euskalduntzen, Alfabetatzen eta EGA

### ESKAINTZA

ERRITMOAK	IRAUPENA	PREZIOA
Egunero 2 ordu	Iraila-Ekaina	16.600 pzta.
Egunero 3 ordu	Iraila-Ekaina	24.900 pzta.
Egunero 5 ordu	Iraila-Otsaila	21.600 pzta.

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak izango dira.



**HEMEN ZU ZEU**


### MATRIKULALDIA

Irailaren 9tik 20ra arte

### BULEGO ORDUTEGIA

Goizez 8.30-12.30  
Arratsaldez 14.30-20.00

16 urtez gorakoentzat



**ESKERRIKASKO ETORTZEAGATIK**

**Barrenkale 33 2. Tfnoa: 76 44 53**  
**BERGARA**